



XII. Zuhaitz Eguneko Azoka Berezia jendetsua izan zen Tolosan

POSTUAK ▶ Guztira 18 izan ziren Triangulon, bi eskualdekoak; salduena arrosa landarea izan zen ▶ 4



Zuhaitzez gain, landare eta lore ederrak izan ziren ikusgai. N. URBIZU



N. URBIZU

'AHT gelditzea badago' lelopean, 250 lagundik gorako manifestazioa

TOLOSA ▶ AHT Gelditu! elkarlanak aste osoan antolatu dituen ekitaldiak atzoko manifestazio jendetsuarekin amaitu ziren; «gustura» azaldu ziren parte-hartzearekin eta «kezka» dagoela ere azaldu dute ▶ 4

SANTI ERASO ▶ ARTELEKUKO ZUZENDARI OHIA

«Artelekuk espazio publikoa norberarena dela sentiarazten du»

20 urtez Artelekuko zuzendaria izan ostean uztea erabaki du tolosarrak ▶ 6-7

TOLOSA ▶

Plataformak ez du bat egiten Udalaren irtenbidearekin

Gerontologikoaren Aldeko Plataformak informazioa luzatu die herritarrei ▶ 5



Atzoko agerraldia. E. EZEIZA

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Nola ikusten duzu HITZA?

Herritarrek salaketa ugari egiten dute HITZAREN orrietan udaletxeen kontra. Eskergarria litzateke, HITZAKO kazetariak salaketa hoin berri ematera mugatu ordez, udalaxeetan galdera egitea: ea zer iritzi duten salaketa hoi buruz. Ea zer duten esateko. Eta bi gauzak publikatzea: herritarren edo gizataldeen salaketa, eta udalak edo dena-delako erakundeak salaketa horri emandako erantzuna. Edo erantzunik eza, esan beharko nuke, gure udal-arduradunen abelera ikusita. Adibidez: Tolosako alkateak zer dauka esateko, gerontolajikoari buruzko plenuan plataformako ordezkariari hitza kendu ziela eta?

HAYDEN ▶ -

Nik uste dut *Diario Vasco* egunkariak ikusita TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK eskualdean daukan harrera ona, antzeko albisteak ematen hasi dela. Bestalde, *Diario Vasco* bezalako egunkari «serio eta potoloan» ez diot eskualdeko albiste txiki-kirik jartzeko lekuri ikusten, seriotasuna kentzen diolako. Hitzak idatzi behar ditu horrelako albisteak, berari dagokio, bestela zeini? Ez zait betelana egiten dutenik iruditzen: batzuetan bai, baina beti ez. Gehiago esan-go nuke; azkenaldian albisteak goitik behera irakurtzekoak iruditzen zaizkit. oso erraz irakurtzen ditut eta eskualdeetan gertatzen dena isladatzen dute. Interesekoak izan edo ez, hori da hemen gertatzen dena, ez ala?

MAITANE ▶ -

UZTURRETIK ▶ KRISTINA URRUTIA

Agiragirandoa



Santa Ageda bezpera, Santa eskea edo Agiragirandoa. Izendapen hauxe dakar egutegi gaurko egunak, Otsailaren 4ak.

Santa Ageda martiria hil zuteneko eguna ospatzen dugu gaur koplakantari, makilak eskuan hartuta. Eta halaxe ematen dugu eguna baserriz baseri edo kaleetan etxez etxe.

Txikitatik ikasi eta ikusi dugun festa eguna da. Herri askotan errepikatzen den usadioa da, badugu ordea hemen Leitzan kantu jakina gaurko egunerako. Ez dira Santa Ageda bezperako koplak, ez da "santa AGEDA bospere dugu..." ohiko kantua ere. AGIRAGIRANDO izeneko abesti zaharra da.

12 urte arteko eskola umeak aterazten dira kalera goizean goizetik. Etxez etxe tinbrea joz

hasten dira eta etxeoandreak atea irekitzeko zain dauden bitartean kantatzen dute honako hau: "Agiragirando/ aquí estamos cuatro/ cantaremos dos/ una limosnita/ por amor de Dios/ gaur egun ona/ bihar pazkoa/ etzi ezkontzen da/ gure atsoa/ Agira magira kukurruku/ oilarak ontzik hautsi ditu/ apaltzeko dirue behar dugu/ etxe hontan oilo 2/ batak bestea dirudi/ etxe hontako etxeoandreak/ Amabirjina dirudi"

Leitzan aspaldidanik entzun izan dugun kantua da eta pazko eguna aipatzen duen arren Santa Ageda bezperako eske kantua da. Abestu ondoren atek irekitzen dira eta poltsa batean goxokiak jasozten diren bezalaxe beste poltsa batean etxeoandreak emandako dirua gordetzen dute gazteek.

Eta eztairik urratuz eskileran gora eta behera orduak eman ondoren ederki loditzen da diru zorroa.

da, bularrak moztu zizkieten ...

ARGAZKI ZAHARRA ▶



Aresoko inauteriak, aspaldiko usadioa

Erredakzioa ▶ Gaur egun eza gutzen ditugun inauteriak aspaldi hasi ziren ospatzen Areson. Noski, urteek aurrera egin ahala ospatzeko era ere aldatu egiten da, baina sustraia beti mantentzen da: eromena eta umorea nagusi. Leitzakoan lekukoa hartzen zuten garai batean ere gaur amaituko diren Aresoko inauteriek. Argazkian ikus daitekeena duela 25 urte ospatu ziren inauterien une bat da (1982. urtekoa), zeinean inauteriak Mantran ospatzen baitziren (Txomin Gereñok HITZARI utzi dion irudia da). Jarrai dezala, bada, urte askoan jai giroak, txantxoz. Tolosarroi ere gutxi geratzen zaie euren txanda heltzeko. HITZA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ESANA ▶



IÑAKI PERURENA
HARRI-JASOTZAILEA

«Harri-jasotzea nire bizitza izan da, etorkizunean ere harrien inguruan jarraitu nahi dut»

«Lehen 300 kilokoa ez zen harri handia; egun bik bakarrik jasotzen dituzte 200 baino gehiago»

DATUA ▶

7.000

Kiloa. Sahararen Aldeko III. Euskal Karabana burutu dute joan den urteko abendutik iragan hilaren amaierara bitarte. Tolosaldean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak erronka berri bat ezarri zuen, 7.000 kilo elikagai biltzeko asmoa, hain zuzen ere. Ezarri eta gaudituz ere gaudituz dute. Izan ere, Kultur Etxeko leihoan dagoen neurgailua heldu da kopurura.

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA


ERREDAKZIOA

Joan den urtarrilaren 26an 150 urte bete ziren Pedro Mari Otaño jaio zela. Izena makina bat aldiz entzun dute Tolosaldeko herritar gehienek, zizurkildarrek, batik bat —ikastetxeak bere izena darabana—. Baina, zer dakite gizon honi buruz?

Zizurkildarra sortzez, Errekalde baserrian jaio zen, non bere oroigarri bat duten gaur egun. 53 urte beranduago Argentinako Santa Fe probintziako Rosario hirian hil zen. Bertsolari herritarra zen Pedro Mari Otaño, baina oso jantzia, aldi berean, literaturarako joera handikoa. *Limosnatxo* bat edo *Mutil koxkor* bat izenburuen pean idatzi zituen bertsoak bertsolaritzaren historiako sortarik ezagunenetarikoak dira. Baina baita harrigarriak ere; izan ere, bertsoak indar handiena azken puntuan izaten du, eta harako gorde ohi du egileak ustekabea, azken arrazoa; Pedro Mari Otañok, berriz, kontrakoa egiten du: azken puntua beti berdina erabili, eta horrek behartuta errima berbera sei bertsoetan, eta hala ere sinetsi ezinezko indarra eta kalitatea du sorta osoak.

Zazpiak bat ere aipagarria da alde askotatik: abertzaletasun politikoak bere formulazioak finkatu baino lehen, euskal idazleen artean zabaldua zegoen Euskal Herriaren batasunaren ideia, hizkuntz komunitatearen sentimenduak ematen duen kontzientziari esker.

Otaño hiru aldiz joan zen Argentinara, eta hezurak hemen uzteko nahia adierazi arren han utzi behar izan zituen azkenik. Bizimodua atera beharra eta herrimina sakona elkarrekin lotuta etorri zitzaizkion: Argentinako panpan artzain



Errekalde baserrian jaio zen bertsolaria. JOXIN AZKUE / INDALIZIO OIANGUREN

edo Buenos Airesen euskarairakasle zegoela ere, tristura horri ezin izaten zion aurre egin. Ezin modu ederragoan adierazita dago oroimin hori *Amerikako panpetan* izeneko olerkian.



Pedro Mari Otaño. HITZA

‘LIMOSNATXO BAT’ ▶

Mutil koxkor bat ibxu-aurreko / zubela aldamenian, / gizon burusoill bizar-zuri bat / bi makuluren gañian, / kale eskiñan ikusi nuben / iñora eziñ joanian; / ta bera nor zan jakin nayian / inguratu nintzarian.... / limosnatxo bat eskatu ziran / Jainkuaren izenian. // Zerbait ernanaz galdetu niyon / altzan modu onenian, / jayotzatikan al zeukan ala / gaitzak artuba mendian; / erantzun ziran: ez, semia, ez, / nik sasoya nubenian, / ez nuben uste iritxerik / onetara azkenian ... / gaur limosna bat eskatutzen det / Jainkuaren izenian. / (...) / Ai! txohakeri asko egiten, / da zentzurik ez danian, / sinista zazu ur au pasia / daukanaren esanian; / obiago da sasoi dan arte / sayatutzia lanian, / negar egiñaz ibilli gabe / gero denbora joanian... / limosnatxo bat bildu eziñik / Jainkuaren izenian.

Beharrak bultzatutako herrimina

Pedro Mari Otaño bertsolari ospetsua jaio zela 150 urte bete dira joan den urtarrilaren 26an

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharpenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetekin
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

ILUMINAZIOA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

LIZARRIBAR
ONINAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

XII. ZUHAITZ EGUNA ▶

Kimuak, paisaiak edertzeko

Arrosa landareak izan ziren eguneko deigarrienak eta salduenak



Hurrengo urteetan horrelako zuhaitzek emango dituzten fruituen adibideak ere izan ziren. N. URBIZU



Zuhaitzez gain, landare eta lore ederrak izan ziren. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Tolosako XII. Zuhaitz Eguna izan zen atzo. Uzturre azpiko parajeetara jende ugari hurbildu zen: batetik, larunbateroko azokara, eta bestetik Triangulon urtean zehar ez dauden landare eta zuhaitz postuak ikuskatzera.

Eguraldia lagun, Zuhaitz Egunean era guztietako zuhaitzak, zuhaixkak eta landareak izan ziren salgai eta ikusgai Triangulo plazan: fruitu arbolak, baso landareak, landare

apaingarriak... Aukera handiak izan ziren denentzat: palmondoak, laranjondoak, sagarrondoak, limoiendoak...

Berez, fruitu arbolak dira nagusien azoka honetan: era guztietako sagarrak, laranjak, limoiak... Hurrengo urteetan hainbat lorategitan ikusi ahal izango direnak, hain zuzen.

«Jendeak asko eraman duen beste produktu bat arrosa da», diote antolatzaileek. Kolore aniztasun handia dago arrosetan gainera: betiko arrosa, gorria, more argia, zuria... Orain landatzen hasteko aproposak.

Postu aniztasuna

Gutzira 18 postu ezberdin izan ziren, eta eskualdeko bi: Albizturko Ramon Lasaren Lasa mintegikoa eta Anoetako Jose Ramon Urkizu, Urkizu mintegikoa, hain zuzen. Beste guztiak kanpotik etorritakoak izan ziren: Nafarroatik hiru, Bizkaitik 5 eta beste guztiak gipuzkoakoak: Donostiakoak, Irungoak, Andoain, Usurbil, Beasain eta Zegamakoak.

Erosteko asmoekin hurbildu zirenek eskaintza oparoa izan zuten: eguna pasatzera joan zirenek, berriz, usain eta kolore andana ikusi zituzten.

AZOKA ▶

Zuhaitzen Azoka Berezia, animosoa eta giro politean

Fruitu arbolak, baso espezieak eta apaingarrirako zuhaitzak izan dira

PABLO ALBERDI

Atzoko arbolan azoka berezia animosoa eta giro politean suertatu zen. Triangulo plazan, bisitari eta erosle dezente izan ziren, eta aukeran zegoen eskaintza ikusiz, inor beharrean geratu ez zela esan dezakegu.

Oso zerrenda zabala ikusi genuen, fruitu arbolak, baso espezieak eta apaingarrirako zuhaitzak. Fruitu arbolan artean, sagarrondoak, udareondoak, gereziondoak, mizpiradiak, kiwiak edo eta intxaurondoak. Kanpoko eta bertako baso espezieak ere izan ziren, eta apaingarrirako zuhaitz asko postuetan; beste artean, palmondoak.

Zerkausian aurtengo lehenengo udare sagarrak aurkeztu zituzten eta ondo saldu ere bai; hauekin, mendiala sagarrak eta betiko errezilak.

ATZOKO AZOKA ▶

Prezioak	merk.	gares.
Berdura plaza		
Gerbera	12,00	-
Pensamientoa	1,00	-

Bertako produktuak

Errezil sagarra	0,60	8,00
Kiwiak	3,00	-
Erremolabxa	1,50	2,00
Azenarioa	1,20	10,00
Arrautzak	1,30	2,10
Irasagarra	3,00	6,00
Ogi biologikoa	2,20	-
Gazta berria	19,00	-
Behi gazta	7,00	7,50

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Erremolabxa	1,60	-
Tipula	1,75	2,00
Arbi morea	4,00	-
Dilistak	2,40	-
Azukrea	3,35	-

ZUZENKETA ▶

Atzoko alean Santa Ageda bezperako egitarauan Villabonakoak plazan elkartuko zirela argitaratu zuen HITZAK, baina Zentroan elkartuko dira.

AHT ▶

300 lagun inguruk hartu dute parte Triangulotik abiatutako manifestazioan

Asteko jardunaldi jendetsuarengatik bihar ere bilera egingo dute

N. URBIZU

Tolosako Triangulo plazatik abiatu zen Tolosaldeko AHT Gelditu! elkarlana taldeak atzo antolatutako manifestazioa, *AHTrik ez! Gelditzea badago!* lelopean. 300 lagun inguru elkartu zen. Aralarrek ere bat egin zuen manifestazioarekin.

Mendi martxa egin zuten aurretik 20 bat lagunek, «gehi atzetik joan ziren hiru Guardia Zibil». Ibilaldian «botako dituzten baserriak ikusi genituen; Montezkuen eta Hernialden daudenak».

Manifestazioaren bukaeran idatzi bat irakurri zuten: «Udaletxeen betebeharrak da kalte-



Triangulotik abiatu zen manifestazioa, lehenengo Alde Zaharrera joanez, San Frantzisko etorbidean berriz azalduz. N. U.

dun zuzenei eta herritarrei informazioa ematea, eta, ez badute, beraien ardura da behar den tokian eskatzea». Horrez gain, politikoei zuzendutako beste aipamen bat egin zuten: «Herritarrek jakinaren gainean egon behar dute beti, isilkeriak eta azpizjokoak alde batera utziz, denon eskubidea baita gure diruarekin zer egiten den jakitea».

AHT Gelditu! Elkarlanean taldeak, bukatzeko, «gure esku dagoena egitea besterik ez» dela gelditzen esan zuten: «Antolatzea eta borrokatzea da gure alternatiba».

Bihar bilera izango da

«Pozik» daude aste honetan jardunaldiekiko jendearen erantzunarengatik. «horrek esan nahi du kezka bat dagoela». Horregatik, bihar bilera izango da 20:00etan Kultur Etxean informazioa ematen jarraituz, besteak beste.

INAUTERIAK ▶



Gosaldu ondoren eskean hasi ziren Aresokoak. N. URBIZU



Otsolar dantza taldekoek saio bat eskaini zuten atzo goizean. HITZA

Mozorrorik gabe bada ere, Lizartza eta Areso Inauterietan

Dantza eta musika izan da nagusi bi herrietan; gaur, batean eskean ateratzen diren bitartean, besteak mozorro festan

ESTI EZEIZA

Musika, dantza eta mozorroak ezin dira falta inongo inauterietan. Eta lege horri jarraituz, festarako osagai guzti horiek bildu ziren atzo Lizartzan eta Areson. Bi herrietan ere, duela urte askotatik datozen usadioei jarraitzen diete, baina, bakoitzak bere erara.

Lizartzan, atzo, inauteriei hasiera emateko txekorraren gibel dastatu zuten herritarrek. Jarraian, Inauterietako agintariak bertan zirela, dantza eta antzerki saio bat izan ziren Otsolar taldeko dantzari gazteen eskutik. Hala, ikuskizuna amaitu eta gero, herritarrek, festarekin jarraitzeko asmoz, plaza inguruan geratu ziren

hizketan eta tragotxo batzuk hartzen. Dena den, atzokoa motorrak berotzeko besterik ez zen izan. Gaur ere izango baita zer ikusirik Lizartzan. 14:15ean mozorro festa eta kalejira egingo dituzte eskolak antolatuta. 20:00etan berriz, Otsolar dantza taldearen beste emanaldi bat izango da Aztinondo pilotalekuan.

Asteburu honetakoa nahikoa ez, eta datorrenean ere Inauteriak ospatzen jarraituko dute Lizartzan, gero Tolosako koei paso emanez.

Aresoko inauteriak

Nafarrek ostiralean eman zieten hasiera Inauteriei. Atzo berriz, goiztiar ibili ziren,

09:30ean bapo gosalduta eta baserrietara abiatu ziren eskean ibiltzeko. Akordeoi-joleak launduta eta zangozorroekin atonduta abiatu ziren mendi aldera. Lanak amaitu ondoren herrira jaitsi ziren berriz, bazkaltzeko. Otorduaren ondoren 18:00ak aldera musika izan zen plazan herritarrek dantzan jaritzeko. Egunari amaiera emateko, Pake-toki elkartean bildu ziren herritarrek afaltzeko. Honen ondoren ere musika ez zen falta izan, honela, trikitilariak aritu ziren goizaldera arte.

Inauteriei amaiera emateko, gaur, berriz ere 09:30ean gosalduta eta eskera abiatuko dira. 14:30ean bazkaria izango dute eta 19:00etan musika, Jaione eta Jonen eskutik.

TOLOSA ▶ GERONTOLOGIKOA

Udalak aurkeztutako irtenbidearekin ez du bat egiten Plataformak

Javier Arana: «Gu ez gaude konponbidearen aurka baina egokiago batzuk bazeuden»

E. EZEIZA

Gerontologikoaren aldeko plataformakoek batzarra egin zuten atzo Euskal Herria plazako egoitza zaharrean «informazio zuzena» emateko herritarrei.

Bertan azaldu zuten, ez daude ados Udalak aurkeztu duen proiektuarekin. Honek, aurreko Gerontologikoak zituen hiru ezaugarrietako bi ez baititu izango. Egoitza zahararen hiru abantaila ziren, publikoak izatea, kalitatezkoa eta erditik gertu dagoena. Hala, Plataformako aburuz, Udalak proposatzen duenak azken ezaugarria bakarrik izango du.

Atzo gaitzetsi zuten beste puntuetako bat, itxaron zerrendei, epe laburrera eman dieten irtenbidea da. Izan ere, Iurreamendi egoitzan 13 plaza gehi-

tzera erabaki dute. Plataformakoek adierazi zuten, «logikoagoa litzateke bestea egin bitartean Euskal herria plazako egoitza zaharra irekitzea». Honekin batera azpimarratu zuten ez daudela ados irtenbide berriarekin. «Udalak aurkeztu duen proposamena, eman ahal zitekeen irtenbiderik txarrena da». Dena den gaineratu zuten Javier Arana plataformako kideak, «gu ez gaude irtenbidearen aurka, baina beste egokiago batzuk badaudela uste dugu».

Oraindik ere, hasieratik plazaratu zuten proposamenarekin jarraitzen dute: aurretik zegoen egoitzan berrkuntzak egitea, eta hau, Iurreamendi Fundazioak kudeatzea. «Kudeaketa pribatua izateak kalitate kentzen baitio egoitzari, ho-



Gerontologikoaren aldeko plataformak atzo deitutako batzarra. E. E.

nen helburua irabaziak lortzea baita».

Gogor kritikatu zuten ere, Udalak Aldundiaren aurrean

izan zuen jarrera. Hau da, «Aldundiak erabaki zuenean gerontologiko itxi behar zela, Udalak ez zuen ezer egin hau

ekiditeko, ez zituen herritarren interesak defendatu». Plataformakoek azaldu zuten, beste hiri eta herri batzuetan Aldundiak kudeatzen ditu adinekoen zentruak. «Baina honekin ikusi dena da, Aldundiak gastuak murrizteko eta pribatizatze gogoa zuela». Bestalde, kontrarian bat dagoela iritzi diote, «aurreko zentrua beharrik ez zegoelako itxi bazuten, zergatik orain handiago bat eraikitzea proposatzen dute?». Beraien ustetan, enpresa pribatuei komeri zaie Gerontologiko handi bat egitea, irabazi handiagoak izatea suposatuko baitu honek.

iragarki laburrak ▶

<p>ALOKAIRUAN Etxebizitza. Lekunberrin 60 m2ko pisua alokairuan. Egongela, bainugela, sukalde eta 2 logelekin. 679 20 14 60.</p> <p>SALGAI Autoa. Seat Ibiza. 5 urte. 75.000 kilometro. Interesatuak deitu 665 708 208ra.</p> <p>Furgoneta. Volkswagen Eurovan</p>	<p>2.5 TDI. Mahaia eta ohearekin. 665 704484.</p> <p>LANA Gidariak. Erakunde publikoetarako behar dira. Deitu 943 44 48 66ra.</p> <p>Harreragileak. Erakunde publikoetarako harreragileak eta laguntzaileak behar dira. Deitu 943 48 66ra.</p>
---	--

OLATZINMO
INMOBILIARIATIA

- Errota, 3 -
 Villabona
943 243 118
635 706 728
 Olatzinmo@euskalnet.net
 www.olatzinmo.com

Tolosa - Villabona - Zuzurkil:
 32.000.000 - 192.300 €-tik
 aurrera
 etxebizitzak salgai.

SANTI ERASO ▶ ARTELEKU ARTE ZENTROKO ZUZENDARI OHIA

«Espazio publikoa norberarena dela sentitzeko aukera ematen du Artelekuk»

Hogei urtez Artelekuko zuzendari izan ondoren, kargua uztea erabaki du; ezagun du pozik dagoela egindako lanaz, eta ezagun du bihotzean geratu zaiola Arteleku

JUAN LUIS ZABALA (Berria)

Bizitzaren zati handia utzi du Santi Erasok (Tolosa, 1953) Artelekun, eta oraindik ere, Artelekuko parte sentitzen dela igartzen zaio Artelekuri buruz hitz egiten duenean. Bi urteko lanuztea hartu du, eta ez du gero kargura itzultzeko inolako asmorik. Baina, lankide batekin hizketan ari zela, barrutik atera zitzaion aurreko batean Arteleku ixtea erabakiko balute berehala itzuliko litzatekeela Arteleku defenditzera.

Zerk bultzatu zaitu Artelekuko zuzendari kargua uztera?

Arrazoi asko daude, baina azkeneko bultzada Alicia alaba txikiarengandik gertu egoteko gogoia izan da. Horrekin batera, beste kontu nagusi bat dago: 20 urte asko dira. Lan ona egin dugula uste dut, baina aldatzeko unea iritsi dela. Tabako Fabrikaren kontua ere tartean egon da...

Edukien zuzendari kargua eskaini zizuten eta onartu egin zenuen hasieran...

Bai, baina gero hasi nintzen ikusten zer-nolako lana egin beharko nuen eta ez zitzaidan gustatu. Ez nuen neure burua ikusten Ordoñez-Falcon Fundazioak bere bilduma pribatua kokatzeko Tabako Fabrikaren 6.000 metro karratu hartu behar dituen eztabaidatzen; edo Liburutegi Nazionala egin behar dugun eztabaidatzen, digitalizazioaren garaian bete-betean sartuta gaudenean... Intelektualki ez ninduen asebetetzen horrek. Horrelako debata ez zaizkit interesatzen dagoeneko.

Zer egiteko asmoa duzu orain?

Sevillara noa bizitzera, familia-rekin, eta une honetan denbora libre gehiago izatea nahi dut, beste gauza batzuetan pentsatzeko. Lanerako eskaintzak baditut, baina orainoz, ez daukat konpromisorik.

Ez duzu inolako loturarik izango Tabako Fabrikarekin?

Joxean Muñozekin [Tabako Fabrikaren kokatuko den Kultura Garaikide Nazioarteko Zentroaren zuzendaria] harremanetan jarraituko dut, baina ez daukat inolako konpromiso estrukturalik, orainoz behintzat.



Aurrerago izango ote dudan, ez dakit. Airean dago.

Nork hartuko du zure lekua Artelekun?

Lourdes Urrutia, orain arteko gerentea, da orain zuzendaria, eta edukien koordinatzailea hautatzeko lehiaketa publikoa egitea erabaki dugu. Nire asmoa zen Miren Erasok, dokumentazio biltegiaren ardura-dunak, hartzea ardura hori, baina ezetz esan digu. Horregatik lehiaketa publikoa egitea erabaki dugu.

Tabako Fabrikak Artelekuren etorkizuneari izan zezakeen eraginaren inguruko kezka agertu zenuen duela bi urte. Nolakoak izan behar dute bien arteko harremanak?

Ez dakit ziur. Baina erabaki batzuk hartu beharko dira. Tabako Fabrika abian jartzen denean, aldaketa asko sortuko dira Gipuzkoako eta Euskal Herriko mapa kulturalaren, oso egitasmo indartsua baita. Artelekuren zeregina berriz definitu beharko da. Edozer gauza gerta daiteke. Hauteskondeen emaitzek ere izango dute zerikusia. Baina uste dut Artelekuk jarraitu behar duela bere lana egiten urte batzuetan.

Orain arteko izaera eta filosofia berarekin?

Orainoz behintzat bai, aldaketa erabatekorik gertatzen ez bada. Horretaz hitz egin dugu, eta Joxean Muñozek ere ez luke gustuko izango Artelekun ixtea, hori Tabako Fabrikaren eragin kaltegarri gisa agertuko bailitzateke. Gure ustez, Artelekuk jarraitu egin behar du, Tabako Fabrikak egiten duena kontuan hartuz, bien artean zer elkargune dauden ikusiz eta horren arabera jokatzuz. Nire ustez, osagarriak dira. Tabako Fabrika proiektu politiko-kultural handia da, eta horrenbestez, publiko asko erakartzen saiatu behar du. Artelekuk, aldiz, beti bilatu du jende gutxiago erakartzea, baina etortzen direnak interesatuta egotea, parte-hartzaileagoak izatea. Publiko zabal bakarrarekin lan egin ordez, publiko txiki ugari-rekin egiten du lan Artelekuk.

Tabako Fabrika oso handia denez, Arteleku hara eramateko tentazioa sor daiteke.

Une honetan dagoen bezala,

JARRAIPENA

«Artelekuk jarraitu egin behar du, Tabako Fabrikak egiten duena kontuan hartuz. Osagarriak dira»

TABAKO FABRIKA

«Tabako Fabrika ez da behar bezain erradikala izango politikari batzuen buruetan betiko eskemak badaude»

eta une honetan den bezala, Arteleku ezin da beste leku batera eraman. Arteleku eraikin periferikoa da, auzo batean dago, eta horrek ere ematen dio identitatea. Artelekuk espazio publikoaren eta pribatuaren arteko orea egokia aurkitu du. Espazio publiko norberarena dela sentitzeko aukera ematen du Artelekuk, eta hori eredugarria iruditzen zait. Espazio irekia izan da beti, eta bertan landutako gaien inguruan interesatuta dagoenari zabalik dago.

Malgutasuna funtsezkoa da, beraz.

Arteleku beti egon da obretan, hori nortasunaren parte bat da. Artelekurena beti obra berriak egiteko aukera ematen duen eraikina da, proiektuen

arabera aldatzen joateko aukera duen lekua. Tabako Fabrikak ez du aukera hori emango. Gurea, alde horretatik, oso eraikin malgua eta aldakorra da, oso eraikin demokratikoa, nire ustez. Konstituzioek ere halakoxeak izan beharko luke. Adibidez, duela hamar urte obra handia egin genuen, ordenagailuei eta digitalizazioari lekua egiteko. Eta gero ere behar izan denean, hormak bota edo lekuz aldatu izan ditugu. Produktio kulturalako ereduak aldatu ahala, egokitzeko ahalmena du Artelekuk.

Nolakoa zen hasierako Arteleku, eta zertan aldatu da gehien?

Hasieran, artistentzako lokalak zeuden. Aurreneko tailerra litografiakoa izan zen, gero serigrafikiakoa sortu zen, egurrarena ondoren... Artista post-oteizarren garaia zen. Orduan arte produktzioa materialarekin estu lotuta zegoen, askoz fisikoa zen, objektualagoa, materialagoa... Gaur egun Kolobika Jauregik eta beste batzuek horrelako lanak egiten jarraitzen dute, baina beste molde batzuk azaldu dira. Pintoreak pintore izaten jarraitzen dute, baina, hala ere, kasu gehienetan prozesua erabat ezberdina da digitalizazioaren eraginez. Hori gustuko izan edo ez, forma berri horiek hor daude eta horiei erantzun bat eman behar zaie.

Beraz, Arteleku beharrezkoa iruditzen zaizu, eta ez duzu uste arriskuan dagoenik.

Dagoen lekuan oso ondo dago, eta bere zeregina dauka. Baina gerta daiteke erabakia hartu behar dutenek erabaki traumatikoa hartzea, eta esatea proiektu hau amaitua dagoela, Artelekuri dagokion dirua Tabako Fabrikara doala. Niretzat nahigabe handia izango litzateke, eta oso erabaki okerra. Aurreko batean lankide bati komentatu nion, txantxetan, horrelako albiste bat jasotzen badut Sevillan berehala itzuliko naizela. Baina oraingoz behintzat ez dut uste halako alibiterik izango denik.

Artelekuren zeregina argi ikusten duzu. Baina zelan izan behar du Tabako Fabrikaren zeregina?

Nire ustez, erantzun bat eman behar dio kultura garaikidearen arloko azken aldaketei, erradikala izan behar du horretan. Baina Tabako Fabrika ez da behar bezain erradikala izango politikari batzuen buruetan betiko eskemak baldin badaude. Euskadiko Filmategiarekin jarriko dizut adibidea. Orain artean filmategiak, liburutegiak bezala, biltegiak izan dira batez ere. Gaur egun, digitalizazioak materiala gordetzeko erraztasun handia eskaintzen du, eta hori baliatu behar da publikoari zerbitzu egokia eskaintzeko, materiala publiko-

aren eskura jartzeko, copy-right-ak liberalizatuta. Kultura garaikideko zentro batek horretara jo behar du nahitaez, eta Joxean Muñoz ere horren aldekoa da.

Egun mundu osoan ezagunak diren Euskal Herriko artista asko Artelekutik pasatuak dira: Ibon Aranberri, Javier Grazonea, Jon Mikel Euba, Maider Lopez, Jose Ramon Amondarain, Pello Irazu...

Eta ezaguna ez den jende asko ere pasatu du Artelekutik. Ikastetxeetan edo unibertsitatean eskolak ematen dituen jendea, adibidez. Ezinezkoa da Artelekuren eragina neurtzea. Eta artistak Artelekuri ez ezik beste gauza askori ere lotuta daude, Arte Eder fakultateari adibidez...

Bilboko Guggenheim museoak lagundu al du munduan euskal artista berrien inguruko interesa pizten?

Gaur egun, munduan ezagunak diren euskal artistak berdin izango ziren ezagunak Guggenheim gabe. Beharbada, kasuren batzuetan, izan du eraginik, baina nik uste dut gertatu denak ez duela funtsezko loturarik Guggenheimekin. Artista post-oteizarren belaunaldi batek egindako lanaren ondorioa da. Baliteke Guggenheimek ginga jarri izana pastelari, baina pastelaren krema transmisio askoz ere zeharkakoagoetan dago.

KZGUNEA ▶

KZguneko ikastaroetan izen-ematea zabalik

Otsaileko KZguneko ikastaroetan izen emateko epea zabalik dago jadanik. Ikastarotik, beti bezala, Internetenak izango dira. Astelehenetik, hilaren 5etik 16ra izango dira, 11:00etatik 13:00etara. Izena eman nahi duenak 943 653720 telefono zenbakira dei dezake edo bestela KZgunetik pasa.

ZINEMA ▶

‘Gure sagutxo hori’ eta ‘El ilusionista’, gaur

Bi film eskainiko ditu gaur arratsaldean Leidor aretoak. Lehen a etxeko gaztekoenei zuzenduta *Gure sagutxo hori* izango da, 17:00etan. Ondoren helduen txanda izango da; hala, bigarren filma *El ilusionista* izango da eta bi saio emango dituzten, 19:30ean eta 22:30ean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarzan autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. San Blas auzoko jaiak: diana 9:00etan Konponezinak txarangarekin; meza 11:00etan; dantzariak 12:00etan; aizkolariak 12:30ean; bertsolariak 13:00etan eta 18:00etan eta trikitixa 18:00etan.
Tolosa. Udal Txistulari Bandaren eta Tolosako Musika Bandaren urteroko Kalderero eta Inauteri kontzertua lurreamendi egoitzan 11:30ean.
Asteasu. Santa Ageda bezperan kantari aterako dira, 13:30ean plazan, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta, presoen alde. Parte-hartzea irekia da eta Amets Arzallus bertsolaria izango da bertan.
Orexa. Guraso Eskola antolatuta dute gidaria Garbiñe Merino dela otsailaren 13an, otsailaren 27an eta marxoaren 6an 18:00etatik 19:30era. Haurtzaindegi zerbitzua izango da. Izen-ematea, 943 682228 telefonoan.
Tolosa. Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai daude Cantabrico, Triangulo eta Meson Atodo tabernetan.
Zizurkil. Izen-abizenak eskal grafiara aldatu nahi duenak Aurrera plazako udal bulegoetara jo dezala errolda agiria, jaiotza agiria literala, NANen fotokopia eta familia liburuarekin.
Anoeta. Alkartasuna jubilatuen biltokiko tabernajatebearen ardura hartu nahi duenak, udaletxean eska dezake informazioa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.
Tolosa. Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.

Bihar
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitza* hegana (errepikapena).

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Agur Kultur Asteari

IBARRA ▶ Atzo amaitu zen Uzturpe ikastolako Kultur Astea, haurrei zuzenduriko jaialdiarekin; puzgarriak eta musika izan ziren Belabietako kiroldegian



Puzgarrietan haur asko izan ziren: batzuk erori gabe salto egitea lortu zuten. N. URBIZU



Txikienak, saltatu baino, lurrera joaten ziren. N. URBIZU



Guraso batzuk ere animatu ziren haurren jostailuekin jostatzera. N. U.

ERREDAKZIOA

Zazpigarren urtez, Ibarra-ko Uzturpe ikastolako Kultur Astea bere amaierara heldu da. Atzo burutu zituzten azken ekitaldiak eta haurrak izan ziren honetan protagonista. Belabietako kiroldegia jolasleku erraldoi bat izan zen goiz zein arratsalde. Bertan lau puzgarri eta umeentzako txoko berezia atundu zituzten, gutzia trikitixaren doinuepean.

Guraso asko izan ziren bertan euren umetxoekin eta guztiak gustura azaldu ziren antolaketaekin. Kultur Astea hasi zenean ikastolako zuzendariak Jokin Zugastik adierazi zuenez, Kultur Astearen helburu nagusia «Ibarraldean gizarte eragile izatea da, bide horretan haur eta gurasoei kultura eskaintzen zaielarik». Gurasoen kasuan bereziki, «gure asmoa gai ezberdinen inguruan formazioa eskaintzea da». Bi astez, bederen, landu dituzten ekintzekin helburua lortzeko buru-belarri aritu dira.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa